



ABALTZISKETA

“TOLOSALDEA SAHARAREKIN”

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideek Saharar herriarekiko elkartasuna lortu eta errefuxiatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramateko helburua dute. Horretarako bide bat janari bilketa egitearena da.

Janari bilketa hau urtarrilean gauzatzen da. Abaltzisketan janari bilketa hau honela egingo da:

- **BILKETA EGITEKO EPEA:** 2022ko urtarrilaren 24tik
2022ko otsailaren 4ra.
- **BILGUNEA:** Abaltzisketako Udaletxean, bulego orduetan.
- **BILDU BEHARREKO JANARI ETA MATERIALA:**

Lekaleak, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olioak, konpresak eta haur eta helduentzako pixaohialak. Eta haurrentzat eskolako materiala ere jasoko da.

Besterik gabe, aurrez zuen laguntza eskertuaz, agurtzen zaituztegu.

Abaltzisketan, 2022ko urtarrilaren 31an.

Alkateak